

noaia

Aste hasieratik, eremu gorrian

**Usurbil berdinzale eta
bizigarriagoa eraikitzeko
proiektu sorta aurkeztu du
Udalak**

**Ameba taldeak “Elikatuz”
diskoa aurkeztuko du igandean
Sutegiko auditorioan**



**Itoitz Rodriguez:
“Inoizko sasoi
onenean nago”**



Otsailak 13, larunbata

ERRADIKALAK GINEN

**Antzerki, bertsoa
eta bakarriketa**

Ordua: 18:00.

Non: Sutegiko auditorioan

Nori zuzendua: Gazte eta helduei

sarrerak: alde zurretik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noqua



COVID19 BIRUSAREKIN GAILOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarreko materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).
Pazientearen logelaren barruan egin.



SARTU 1GO POLTSA, ZAINZAILAAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).
Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.
DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776):
GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



ARRETAZ GARBITU ESKUAK,
URA ETA XABOIA ERABILITA,
40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik

GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan
Etxean: errefusaren kuboan



GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN

ASTELEHENA	ASTARITZA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDIA
Organikoa Koka-haketa	Deitu: arrak Koka-haketa	Papera eta kartoiak Koka-haketa	Organikoa Koka-haketa	Deitu: arrak Koka-haketa	Organikoa Koka-haketa	Errefusa Koka-haketa
Organikoa Koka-haketa	Deitu: arrak Koka-haketa	Papera eta kartoiak Koka-haketa	Organikoa Koka-haketa	Deitu: arrak Koka-haketa	Organikoa Koka-haketa	Errefusa Koka-haketa



Albisteak iruditan

Elikagai potoak lurrean botata

Zabaldu gabeko salda tetrabrikak, esne paketeak eta txokolate potoak ageri dira aldameneko argazkian. Poltsa zuriaren barruan ere, kontsumitu gabeko elikagai gehiago daude. “Bai arraroa”, irudia bidali digun herritarak idatzi digun moduan.

“Irudi bat bidaltzen dizuet Kaffa ondoko zintzilikario batean atera duguna. Bertan janari pote ireki gabeak, hala nola esnea, salda, nozilla eta abar ageri dira”, dio irakurleak bidali digun emailean. “Beste poltsa bat ondoan, eta bertan ere janari pakete osoak sumatzen dira. Arraroa”. Ez omen da gauza isolatua. “Atzo gainera (otsailak 3 asteazkena), Garbiguneko irteeraren ate ondoko kanpo alde-tik gauza bera ikusi genuen. Han ere bi poltsa behintzat bazeuden, janari pakete osoak zeudelarik”.



Kaffa kafetegiaren ondoko zintzilikarioan ateratako argazkia. Kontsumitu gabeko elikagaiak ageri dira lurrean. Kexu, ohar edo dena delakorik igortzeko, erredakzioa@noaua.eus helbidera idatzi.

Laburrean

Eremu gorrian, 539ko intzidentzia tasarekin

539raino igo zen 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentziarekin eremu gorria igaro zen Usurbil aste hasieran. Iragan aste osoan 20 Covid-19 kasu detektatu zituen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak udalerri honetan.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen biltzeta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

“Biohondakinen kudeaketa”, Hobekiren jardunaldia

“Biohondakinen kudeaketa: nola gaude eta zer egin dezakegu?” jardunaldia antolatu du Usurbilgo Udala kide duen Hobeki Elkartek otsailaren 17rako Oñatin. Streaming bidez jarraitzeko aukera izango da. Izen-ematea hobekielkartea.eus atarian.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Usurbilgo Udala
Euskal Herra!



Ugaitz Agirre Zapirain

Duela urte asko, denbora behe lainoaren atzean ezkutatzen zen garaietan, basurdeak ziren Andatza mendiaren jabe, eta denen buru Takarpu. Bere presentzia hutsak halako izua sorrarazten zuen ingurukoengan: zazpi gizakumeren altuera zuen, ile zuri lakarra, letagin ikaragarriak, matraila sendoa eta begirada hotza. Andatzara joaten ziren usurbildarrek bazekiten nondik ibili Takarpurekin ez elkartzeko.

Belaunaldiz belaunaldi etxeetan kontatzen zen Takarpuri buruz. Nola hark menditik zaintzen zituen inguruko lurrak eta herritarrek esker oneko izan behar zuten bere babesagatik.

Hala ere, neguko hotzak oraindik bere atzaparrak ezkutatu gabe zituela, sabel hutsarekin orroka hasten zen eta arrapaladan jaisten zuten mendia beheko lurretara gosea ase nahian. Takarputxoek buruzagiaren etorrera iragarritz, eroen abangoardia ziruditen, aztarrika eta orroka inguruko denak izutuz, umeak negar malkotan utziz eta helduak ikusten zutenaz atsekabetuz. Eta denen atzetik, Takarpu buruzagia.

Herrira iristen zenean, plaza bere egiten zuen eta bere gorteak iskanbila eta anaba-



“Denbora behe lainoaren atzean ezkutatzen zen garaietan, basurdeak ziren Andatza mendiaren jabe, eta denen buru Takarpu”.

UGAITZ AGIRRE

“Etxeetan kontatzen zen Takarpuk menditik zaintzen zituela inguruko lurrak eta herritarrek esker oneko izan behar zutela”

sari hasiera ematen zion. Usurbildarrak festa haren parte izan zitezkeen, baldin eta bere bufoi bilakatzen baziren: batzuk dantza egiten zioten, beste batzuk kantatu. Bazeuden txisteak ere kontatzen zizkietenak. Soilik orduan ziren Takarpuren banketeaz gozatzeko gai.

Eta behin tripa asetzen zutenean, berriro ere Andatzara itzultzen ziren. Zaharrenek esan ohi zuten urte horretako zortea apaizaren ondorengo egunetako sermoien gogortasunaren arabera zela. Takarpu herriko buruzagi zen egunetan herritarren morala oso kaltetua suertatu bazen

(beti ere apaizaren ustetan), uzta eta zori oneko urtea izango zen. Beraz, arrosario santua errezatzen egon beharra gaitz erdi gainontzekoa alde izanda.

Baina urte batean Takarpuren egonaldia betirakoa zela zirudien. Ez zen asetzen. Egunak joan, egunak etorri, berak herriko plazan jarraitzen zuen. Usurbildarrek ezin zuten gehiago, jada ez zitzairen ezertxo ere geratzen biltokietan. Zorionekoena izanda ere urte hura, ez ziren gai izango Takarpuren oturuntzetan eta festetan gasatatutakoa berriro eskuratzeko. Baina nor zen gai halako piztitzarrari aurre egiteko?

Kontzejuan bildu ziren usurbildarrak egoera jasangaitz hark era batera edo bestera bukatu behar baitzuen. “Akabatu behar degu!”, zion batek. “Ta nola?”, galdegiten zion besteak. “Besterik ez badao, nere atzaparrekin!”, zen erantzuna. “Noaua? Etzaite baba-

loria izan ta etorri honea derrepentian!” Iskanbilaren erdian, errotariaren alaba txikia hurbildu zen gosez eta galdetu zien guraso biei ea aurkitu berri zituen fruitu haiek jan zitzakeen. Eskuetan haginaren baiak zituen. Orduan, arazoaren koska nola gainditu jakin zuten. “Zuk ez laztana, baño badaikit nork jan ditzaken”.

Sekulako festa antolatu zuten orduan usurbildarrek Takarpu bera ere harritu zuena. Inoiz ahaztuko ez zuten askaria zerbitzatu zioten buruzagiari eta baita bere takarputxo guztiei ere. Lehen mokadua eman eta bigarrena emateko ez ziren gai izan. Hura festa egin zutena usurbildarrek gau hartan. Denboraldiko ia sagardo guztia edan zuten gau bakar batean.

Zoriontasunak ez ziren luze iraun, ordea, usurbildarrei. Zorigaitzak kolpatu balitu bezala, burua ezin altxatuz ibili ziren: uztak ez ziren emankorrak, sosak desagertu ziren, lurrak lehortzen ziren eta uholde basatiek zoritxarra besterik ez zekarten. Zaharrek hitz egin zuten: “Takarpu berpiztu behar degu, bestela jai degu”.

Gose orroak entzuten dira Andatza aldetik eta zerbait arrapaladan datorrela dirudi.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ERAMATEKO!!!



·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA



www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39



Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Kalezarreko bideetako zenbait lan amaitu dituzte

Eraldatze betean den Kalezarko zenbait bideetako lan amaitu dituztela berri eman du Usurbilgo Udalak. Eta zabalik dira honenbestez. Batetik adinekoen auzunea eraikitzen ari diren eremua eta Txaparren-Berrira jaisteko bidea itxita izan dute biak bereizten zituen horma bota behar zutelako. Horma botata, zabalik da bidea.



Berriz ere zabalik da bidea autoentzat.

Handik hurbil zabalik baita Pikaolako bide zatia, urbanizazio lanak amaitu ostean. Itxita egon da, eta Kaxkotik Kalezarre Haur Eskolatik igo zitekeen ermita paretik, jaitsi ez, eta Usurbila jaisteko Kalezar erdigunea zeharkatu beharra zegoen. Lanon aurreko egoerara itzuli da zonaldea. Berriz ere behin behineko semaforoek bideratuko dute ibilgailuen joan etorria. Kaxkotik Haur Eskolara igotzerakoan, sarbide paretik ermitara igotzeko bide zatia itxita izango da berriz, eta ezkerrera Pikaolara biratu beharko da.

KALEZARREN
“Behin behineko
semaforoek bideratuko
dute berriro ere
ibilgailuen joan etorria”

Alderantzizko bidea egiteko gauza bera, Harane aldetik Pikaolara jaitsi eta semaforoari kasu eginda jaitsi ahalko da Kaxkorantz.

Martxoaren 3ra arte luzatuko
dira N-634 errepideko lanak
 Troia eta Txikiardi arteko

mendi magala egonkortzeko egiten ari diren lanak espero baino beranduago amaituko dira. Hasiera batean, otsailaren 10ean amaitzekotan ziren. Baina aurreikusi baino gehiago luzatuko dira azkenean. Errepideen zaintza lanen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Udalarari jakinarazi dioenez, beste hiru astez hain zuzen. “Lanak martxoaren 3an bukatuko dituztela ohartarazi dute”, berri eman du Udalak sare sozialen bidez.

“Orain inoiz baino gehiago, zuekin gaude!”

Iragan astean Espainiako Auzitegi Nazionalak launa urteko espetxealdiarekin zigortu zituen Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteak. “Ez da bi gazte arabarren aurkako eraso huts bat, herri oso baten nahiak, desirak eta ametsak zapuztu nahi dituen eraso planifikatua baizik”, salatu zuten aurreko larunbatean frontoiko mobilizazioan. Auzitegi Nazionalak epaiturikoa, “konpromiso eta jardun politikoa” izan dela salatu zuten. “Berretsi da injustizia”. Datozen egunotako deialdietan parte hartzera deitu dute. Manifestu bat kaleratu du bi gazteok aske uztea eskatzeko lanean ari den herri ekimenak. Helbide honetan sinatu dezakezue: ankerkeriaristop.eus



Larunbatean elkarretaratzea egin zuten frontoian.

Ika-mika

2021a euskara erdigunean jartzeko urtea izan dadin

Pandemia gizadiaren historian mugarri garrantzitsua izango da, eragin sakona izan eta abagune erabakigarrian gertatzen ari delako. Pertsonon izatea, humanitatea eta mundua bera sakonki eraldatzen hasiak diren abagunea. Horrek hizkuntzaren ikuspegitik ere eragiten gaitu. Euskal Herria euskalduntzeko prozesua burutzetik urrun gaudenean, pandemiaren eta aldaketa-abagunearen astinaldiek prozesu horretan kostata eraiki ditugun zutabeak dar-dar batean

uzten ari dira. Euskalduntzea ondo ez doanaren adierazleak begi-bistan ditugu, pandemia-ekin okerrera egin duten adierazleak. Horrela, pandemiak aukeratzeko atakan jarri gaitu: azken hamarkadatan aurreratutakoa irabazpidean jartzeko normalizazio-prozesuan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo esanguratsua egin, ala, hori egin ezean berriz ere atzerako joeran erori.

EHEren ustez jauzi hori egiteko hizkuntza-politika berria behar dugu. Horrek eskatzen du eragile guztiek beraien

jardunaren erdigunean euskara kokatzea, euskaratik eta euskaraz pentsatu eta aritzea behingoz.

Euskalduntzea bizkortzeko borrokak berrindartzea euskaltzaleon erronka izango da aurtan. Euskaldunon hizkuntza-eskubideen eguneroko urraketak agerian utzi eta euskaraz bizi ahal izatea oztopatzen digun zapalkuntza estrukturala salatu eta gainditzeko euskaltzaleen aktibazioa sustatzearren erronka.

Hori guztia estatuen kanpo esku-hartzerik gabe egin behar

denaren aldarrikapena ere are agotu beharko dugu. Hori baita pairatzen dugun hizkuntza-gatazkaren muina: estatuen inposizio linguizida. Euskal herritarrok soilik erabaki behar dugu zein nolako hizkuntza-politika garatu nahi dugun Euskal Herrian. Horri begira EHEk ekarpen garrantzitsua egingo du aurtan. Ilusioa eta grina berreskuratu eta euskalduntzearen aldeko borroka berrindartzeko urtea izan dadin 2021 hau.

Urko Aierbe Sarasola. Euskal Herrian Euskarazeko kidea.

Usurbil berdinzale eta bizigarriagoa eraikitzeko proiektu sorta aurkeztu du Udalak

Egunero saiatzen dira parekidetasunaren alorreko egitasmoak martxan jartzen edo parekidetasunaren zeharlerroa duten udal politikak garatzen; “gure herriari betaurreko morez begiratzen, gure herria betaurreko morez eraikitzen”. Eta Martxoaren 8a hurbiltzen doan honetan, urte honetarako egitasmo sorta aurkeztu du udal gobernu taldeak. Elkar gurutzatu edo txirikordatzaren diren proiektuak, “Usurbil berdinzale eta bizigarriagoa” eraikitzeko.

Emakumeen Etxea

Kalezarko Pelaioenean kokatuko dira etorkizunean kale-zartarren auzo ekipamendua eta emakumeek “elkar ezagutu, topatu, zaindu, hausnartu” ahalko duten Emakumeen Etxea. Bi egitasmo hauei lotuta, udazkenean abiarazi zizuten parte-hartze prozesuak azken txanpan direla berri eman du udal gobernu taldeak. “Biak ala biak oso prozesu emankorrak, parte hartzaileak eta ederrak izan dira”, Itziar Basterrika zinegotziaren esanetan. Emakumeen Etxearen kasuan, erantzun beharreko beharrak, etxearen ezaugarriak, funtzioak edota erabilera izan dituzte hizpide.



Martxoaren 8a hurbiltzen doan honetan, urte honetarako egitasmo sorta aurkeztu du udal gobernu taldeak.

PELAIOENEA

“Emakumeen Etxeari lotutako parte-hartze prozesuko emaitzak martxoaren 6an aurkeztuko dituzte”

Martxoak 8

Emakumeen Etxeari lotutako parte-hartze prozesuko emaitzak martxoaren 6an aurkeztuko dituzte.

tuko dituzte. Baina ekimen gehiago ere iragarri ditu udal gobernu taldeak Emakumeen Egunaren bueltan; otsailean bideratuko duten “amatasun bizigarriak” tailerra, Ainara Gorostitzurekin. Patriarkatuak hauspoturiko amatasun hegemonikoaren aurrean, “amatasun praktika bizigarriagoak” sustatu nahi dituzte hartara, parte hartzaileen bizipen eta praktiketatik abiatuta.

Simone de Beauvoirren “Bi-

garren sexua” sortze lana euskaratu duen Irene Arraratsen hitzaldia ere programatu du udal gobernu taldeak. “Askorentzat pentsamendu feministan oinarritzeko obra bat da. Argitaratu zenetik 70 urte pasa diren arren, gaurkotasunik galdu ez duen obra bat dela uste dugu eta gaurko perspektibatik horretan sakontzeko aukera izango dugu hitzaldian”, Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan.

“Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen”

Legealdi osoan zehar faseka garatu asmo duten egitasmo honen baitan, Aztikerren eskutik ikerketa kualitatiboa landu dute. “Jatorri desberdinetako herritarrak elkarriketatatu dira, jatorri aniztasunari lotutako esperientziak, diskurtsoak, iritziak jasotzeko”, Basterrikak berri eman duenez. Usurbilen izandako 60-

70 hamarkadetako migrazio olatuaren eta 2000. urtetik aurrera izandako bigarrenaren arteko antzekotasun eta desberdintasunak ere aztertu dituzte.

Migranteen lekukotzak

Horrekin batera, martxo amaierarako iragarri duten Mundualdiaren edizio be-

rezian aurkeztu asmo duten dokumentala lantzen ari dira Maialen Unanue eta Ibai Arrieta herritarrak. Migranteen lekukotzek osatuko dute ikus-entzunezkoa. “Elkar ezagutzan sakondu eta prozesu migratorio horiei izen abizenak jarri” nahi dizkiote, herrikideak baitira guztiak. Aniztasuna kudeatzeko Uda-

laren plan integralean islatuko da lanketa guztia.

Jatorri, kultura, bizimodu eta ohitura anitzak egoki kudeatzeko ezinbestekotzat jotzen du udal gobernu taldeak “gure herri eta auzoetako aniztasuna kohesio sozialerako elementu bilaka dadin”, aniztasuna mehatxua ez, aberastasuna dela argi utzita.

“Nola zaindu” parte-hartze prozesua

Nola zainduak izan nahi dugun, norbanako nahiz komunitate eta erakunde gisa zaintzarako hartuko ditugun konpromisoak hizpide izango ditu udaberrian abiarazi eta zaintza sistema erdigunean kokatuko duen parte-hartze prozesuak.

Zaintza lana udal gobernu taldearen esanetan, ez baita “indibiduala, kolektiboa baizik eta ondorioz politikoa da”. Gaineratu dutenez, “herri zaintzailea izateko zainketen ikuspegi komunitarioa lantzea” izango du xede prozesu honek, Basterrikaren esanetan. Udal gobernu taldetik gogorazten dutenez hain zuzen, pandemiak nabarmenago utzi du agerian, “adinekoei ematen zaien arreta eta zaintza eredu aldatzeko beharra”. Zaintza eredu berri bat txertatzeko proposamena landuko da prozesu horretatik.

Egitasmo honen abiapuntu gisa, eskualdeko berdintasun teknikarien eskariz, Emagin elkarteak zaintza erregimenari buruzko diagnosia landua du; zaintzaileen egoera, zainketa lanetarako eskualdean dauden baliabideak... aztertu dituzte.



Joxan Artzeren poema eraldatu batek irudikatuko ditu datozen udal egitasmoak. Iametzak landutako logoak poeta usurbildarraren sortze lan bat du abiapuntu.

ITZIAR BASTERRIKA

“Herri zaintzailea izateko zainketen ikuspegi komunitarioa lantzea izango du xede prozesu honek”

“Ondorioa argia izan da; herritarren zaintzarako beharren eta baliabideen artean desoreka handia dagoela, eta gaur

egun zaintza migrazioarekin oso lotua dagoela. Horren kaltea emakumeek ordaintzen dute”, alkateak adierazi duenez. 2000. urteko bigarren migrazio uholdean gure artera heldutako emakumeek hain zuzen, nagusiki haiek baitira zaintza lanez arduratzen ari direnak. Beraz, “zaintzen antolaketa ez ditu herritar guztien eskubideak errespetatzen eta horri aterabide bat eman ahal

izatea beharrezkoa da”.

Adinekoen auzunea

Aldi berean ez ahaztu, Kalezarren garai bateko monjen konbentuaren lur eremuan eraikitzen ari direla adinekoen auzunea, Matiairen eta Udalaren proiektua. Eredu aldaketa hau islatuko du egitasmoak. “Finean adinekoak etxean bezala senti daitezen zaintza eredu bat” izango da, alkatearen esanetan.

Jarduera ugari iragarri dituzte apirilera bitarte

Otsailak 10, 17, 24 (asteazkenak)

■ 17:00-20:00 “Amatasun bizigarria” tailerra Ainara Gorostitu Mujikak bideratua.

■ Zehaztasunak: “Gaur eta hemen amatasuna exigente eta zail egiten duten hariak ikusi eta teoria feministen eta amatasunaren historiako ekarpenekin, hausnarketa pertsonalekin eta talde dinamikekin amatasunaren praktika eta

esperientzia bizigarriagoak bilatzea izango da ikastaroaren egitekoa, beti ere, egite horrek dakarren ahalduntzea eta interpelazio politikoa ere helburu izango ditugularik”.

■ Izen ematea: usurbilkultura.eus 943 377 110 parekidetasuna1@usurbil.eus

Martxoak 6, larunbata

■ Emakumeen Etxearen par-

te-hartze prozesuko emaitzen aurkezpen ekitaldia eta eskertza parte hartzaileei.

Martxoaren 8ko astean

■ Simone de Beauvoirren “Bigarren sexua” sortze lana euskaratu duen Irene Arraratsen hitzaldia.

Martxoko azken asteburua

■ Mundualdiaren edizio berezia: aitortza ekitaldi berezia.

Aztikerren ikerketaren emaitzen eta Maialen Unanue eta Ibai Arrieta herritarrek Usurbila etorritako migranteen lekukotzekin sortutako dokumentalaren aurkezpena.

Apiriletik aurrera

■ “Nola zaindu”, zaintza eredu berregituratzeko parte-hartze prozesua.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Aste hasieratik, eremu gorrian

A rgi zen etenik gabe gorantz zihoan 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia tasak 500eko muga gaindituko zuela iragan astean. Eremu laranjan eta 301,20ko intzidentzian ginen aste hasiera hartan, astebururako 491,44koa izatera heldu zen Usurbil. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak otsailaren 8an kaleraturiko txosten epidemiologikoak aurreikuspenak berretsi baino ez zituen egin; 539ko intzidentzia izatera heldu zen udalerri hau, abendu hasierako erregistrora itzuli zen.

Urriaren 26tik azaroaren 17ra eta abenduaren 3tik 10era izan ginen eremu gorria bueltatu gara. Eremu gorrian zen alde aurretik Buruntzaldea osoa, Usurbilek mugakide dituen udalerriak (Orio, Lasarte-Oria, Donostia) edota Gipuzkoa. “Irla” modukoa izateari utzi zion udalerri honek aste hasieran.

Eremu gorrian diren EAE osoko 84 udalerrien zerrendako kide izatera igaro zen Usurbil. Eta kolore honetarako Eusko Jaurlaritzak aurreikusia duen araudia jarri zuen indarrean asteartean. Bereziki kirol jarduerari eta ostalaritzari lotutako neurri murriztaile berriak daude martxan.



Astelehenean sartu zen Usurbil eremu gorrian. Astearte goizean itxita zeuden ostatu denak. Astearte eguerdian ordea, EAEko Auzitegi Nagusiak ostatuak eta jatetxeak zabaltzeko baimena eman zuen. Erabakia behin behinekoa da.

KIROL JARDUERA

“Kirol federatuen entrenamenduak eta lehiaketak etenda daude. Soilik lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean dauden kirolariek eman ahalko diote segida orain arteko jarduerari”

Gaztetxoak osasun fisikorako eskaintzarik gabe berriz

Eskola Kirola eta Zirimara etenda geratu dira, antolakuntzak ohartarazi zuen moduan “eremu gorrian segi artean edota araudi berriak baimendu arte”. Desio argia helarazi diete Usurbilgo familiei; “etenaldi laburra izango dela espero dezagun”. Enegarrenez eten baitute gaztetxoan buru nahiz gorputz

osasunerako premiazkoa den eskaintza hau; iazko udaberriko konfinamenduan lehenik, urrian egun batzuetan martxan izan eta gero udazken osoan. Urte amaierako oporraldian, jarduera fisikora bideraturiko ariketak sustatu zituzten “Neguko Txokoak” antolatu ahal izan zituzten bederen. Eusko Jaurlaritzak urtarrila hasieran 500etik beherako intzidentzia zuten udalerrietan baimendu ostean “kirola eta jolasa bueltan dira” iragarri zuten antolatzaileek. Martxan jartzera heldu dira azken asteotan, eta berriz etenaldia.

Kirol federatuen entrenamendu eta lehiaketak ere etenda daude. Soilik lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduak dauden kirolariek eman ahalko diote

segida orain arteko jarduerari.

Udal kirol instalakuntzei dagokienez, Oiardo Kiroldegiak zabalik segiko du, baina alde aurreko hitzordua eskatu beharko da bertara joateko. “Usurbilen erroldatutakoek bakarrik erabili ditzakete udal kirol instalazioak”. %50eko edukiera edo aforoan zabalduko da eta iluntzeko 21:00ak arte. Aldagelak eta dutxak erabiltzen segi ahalko da (%30eko aforoa). Jardueri dagokienez, 6 pertsonako taldeetan eta beti musukoarekin parte hartuko ahalko da, “kanpoan egiten den intentsitate handiko jarduera fisikoko aparteko uneetan izan ezik”. Horrez gain, “squash, frontoi edo alokairuzko instalakuntzak ezingo dituzte gorde bizikidetzeta unitatea osatzen ez duten taldeek”, Udalak ohartarazi duenez.

Gainerakoan, aire zabaleko kirol jarduerak egiteko baimeak indarrean segiko du, seiko taldeetan egin ahalko da gehienez. Eremu honetan nahiz esparru honetako jardueretan, musukoa beti erabili beharko da, kasuotan izan ezik; “eremu naturalean, hirigune periferikoetan (oinezko gabe), igerilekuetan, baimendutako federatuen entrenamendu eta lehiaketetan, eta kanpoan egiten den intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan”.

Tabernek eta jatetxeak zabaltzeko baimena dute

EAEko Auzitegi Nagusiak aintzat hartu du ostalariek jarritako helegitea, eta eremu gorrian dauden udalerrietako ostatuak zabaltzeko aukera dutela ebatzi du.

EAEko ostalarien elkarten iritziz, neurrigabea da eremu gorrian dauden udalerrietako

ostatuak ixteko erabakia. Euren esanetan, azken asteetan izan diren kutsatzeen jatorria ez dago tabernetan; Eguberrietako topaketen ondorio izan dela diote. Hori salatzeko, auzitara jo zuten. Astearte honetan, Auzitegi Nagusiak aintzat hartu du ostalarien eskaera.

Lehendik zeuden neurri murriztaileak indarrean dira

Gainontzean, orain arte zeuden neurriek indarrean segiko dute; gehienez lau bilkurak, ezin heritik atera edo sartu kasu jakinetan izan ezik (ikasketak, lana, zaintza lanak...); etxeratzeko agindua 22:00-6:00

artean...

Azkenak urtarrilaren 25ean hasi ziren aplikatzen 20 bat egunerako gutxienez; Eusko Jaurlaritzak neurri berriak hartzea, daudenei eustea edota neurriren bat malgutzera erabaki dezake asteburu honetan.

Teknologia berrietan trebatzeko moduko ikastaroak antolatu dituzte helduenentzat

A dinekoek bideokonferentziak eta whatsapp aplikazioa erabiltzen jakiteko ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak herritar helduenentzat. 4 ordukoa, bi aste ezberdinetan bideratuko dena.

Presentzialak izango dira saioak, esan beharrik ez, osasun krisialdiak derrigortzen duen moduan, beharrezko prebentzio neurriak hartuko dira. Baina nahita ez dituzte ez ikastaro egunak ezta tokia ere zehaztu nahi izan. Xehetasunok lotu aurretik izen ematea bideratu nahi dute eta “interesen eta jendearen bizilekuaren arabera ikastaroak leku ezberdinetan kokatuko ditugu”, gizarte zerbitzuetako udal teknikari Maria Salsamendik ekimen honen aurkezpen saioan, Potxoenean zioenez. Ziurrenik Kaxkoan egingo da saioa, baina “auzoetan eskaera balego, bertara eramango genuke ikastaroa”. Izena ematen dutenek,



Ikastaroa 4 ordukoa izango da, bi aste ezberdinetan bideratuko dena.

ITZIAR BASTERRIKA

“Agerian geratu zen sare bat dutenek hobeto jasan zutela konfinamendua”

telefono mugikorra ikastarora eramatea eskatzen diete. Izen emateko aldiz, Gizarte Zerbi-

tzetara deitu besterik ez dute, 943 377 110 telefono zenbakira. Bai izen emateko, baita informazio gehiago jasotzeko ere.

Erabateko isolamendua hausteko ezinbestekoa

Parte hartzeko gonbita luzatu zuen Salsamendik. Ikastaroaren ideia, osasun krisialdiari herri

gisa nola erantzun erabakitzeko urria amaieran herri eragileek egindako bileran sortu zen. Lehendik zegoen arrakala digitala askoz ageriagoan utzi du pandemia honek, oso modu berezian iazko udaberriko konfinamenduan. Etxetik atera ezinik ginela, bide telematikoei hartu zuten garrantzia ukaezina da, bai lanerako, baita noski harremandu eta honenbestez, etxetik atera ezinda bizi genuen isolamendua nola bait “hausteko”.

Itziar Basterrika gizarte zerbitzuetako zinegotziak Potxoeneko agerraldian nabarmen-tzen zuenez, “agerian geratu zen sare bat dutenek hobeto jasan zutela konfinamendu hura. Teknologia digitalean abila-goak direnek etxetik atera ezin eta lagun eta senideekin ohiko bihurtu ziren bideodeiak”. Egoera gogorra arintzen lagundu zuen, baina “zer gertatzen da ordea teknologia berriei kon-moldatzen ez direnekin?”.

Administrazio digitalerantz

65 urtetik gorakoen kolektiboak beste adin tarte batzuekin alderatuta gaitasun digital apalagoa du. Nabaria da arrakala digitala. Usurbilgo Udalak bereziki kolektibo honek bizitako isolamendu gogorrari aurre egiteko telefono deiak egin zizkien “zer moduz zeuden galdetu, laguntzarik behar ote zuten

jakin, inguruan seniderik edo lagunduko zien inor ba ote zuten eta maiztasun batekin deitzea nahiko luketen eza-gutzeko”. Egun administrazio elektronikorako jauzia egiten ari da Udala “Konektatzen” aldarriaren bueltan. Baina Basterrikak ohartarazi zuenez, “herritarrek udalarekin digitalki konektatzeko tres-

nak sortzea bezain garrantzitsu da herritarrek tresna horiek erabiltzen jakitea”. Behar honi erantzuteko iragarri du Udalak teknologia digitalean trebatzeko ikastaroa, baita adinekoen isolamenduari aurre egiteko ere. Bideokonferentziak egin eta whatsapp erabiltzen ikasiko dute parte hartzaileek, “bakardadeari

aurre egin eta hurbilekoekin kontaktua edukitzen jarraitzen laguntzen dutenak”.

“Ongizateaz ari garenean, zahartze aktiboaz ari gara”

Herritar guztien ongizatea helburu duela antolatu du Udalak ikastaro hau, “ongizateaz ari garenean, zahartze aktiboaz ere ari gara” eta.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Kima
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Itoitz Rodriguez: “Inoizko sasoi onenean nago”

GIPUZKOAKO ETA EUSKADIKO TXAPELKETAK IRABAZI DITU 400 METROKO DISTANTZIAN

Usurbildar korrikalariak ondo baino hobeto hasi du urtea. Astebeteko epean Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu, pista estaliko 400 metroko lasterketan. “Sorpresa handiena marka izan da, hala ere”, Itoitzek azaldu digunez. “Lau urte neramatzan marka pertsonala hobetu gabe”.

NOAUA! Zure burua faboritoen artean ikusten al zenuen?

Itoitz Rodriguez: Sorpresa hartu dut markarekin. Gipuzkoan eta Euskadin maila altua da eta postuak harritu egin ninduen. Paretsu gabiltza hainbat korrikalari eta postu ona egitea espero nuen baina irabaztea ez. Sorpresa handiena, hala ere, marka izan da. Lau urte neramatzan marka pertsonala hobetu gabe.

48 segundo azpitik ibili zinen bi finaletan.

47'88 denborarekin irabazi nuen Gipuzkoakoa eta 47'93 segundotan osatu nuen Euskadikoa. Hori ere pozgarria da niretzat, horrek erakusten duelako Gipuzkoakoa ez zela salbuespena izan. Sasoi onean nagoela adierazten du.

Marka ona da gainera, ezta?

Bai. Gipuzkoan, pista estalian,



Indartsu hasi du 2021. urtea. Gipuzkoako eta Euskadiko finalak Donostiako Belodromoan jokatu dira eta bietan garaile izan da. Argazkia: Aitor Sevillano.

ITOITZ RODRIGUEZ

“Azken urteetan lesioak eta arazo fisikoak izan ditut.

Aurten izar guztiak lerrokatu direla dirudi”

lau lagun bakarrik jaitsi gara 48 segundotik. Indar handia eman dit eta, aurrera begira, motibazioa. Hobetu dezake dala uste dut gainera. Urte berezia denez (Covid-19az ari da), lasterketa gutxiago ditu-

gu eta ez dakit aukera gehiago izango ote dudan egindakoa hobetzeko. Hala ere, bi txapelketa hauetan egindako lanarekin oso pozik nago.

Amorru horrengatik egin dituzu hain marka onak akaso.

Sasoi onean nago, inoizko sasoirik onenean. Azken urteetan lesioak eta arazo fisikoak izan ditut eta aurten badirudi izar guztiak lerrokatu direla eta oso ondo nabil. Inoiz baino hobeto ari naiz entrenatzen. Oso talde indartsua dugu, gainera

400 metroko korrikalari asko gaude taldean eta horrek ere zerikusirik izango du.

Real Sociadadeko kirolaria zara. Giro ona al duzue taldean?

Oso harreman ona dugu eta asko laguntzen diogu elkarri. Gure entrenamenduak oso gorrak izaten dira. Atletismoa kirol indibiduala da baina taldeka entrenatzeak asko arintzen du. Sufrimendu hori batera pasatzeko, taldekide onak izatea oso lagungarria da.

“Eskola Kirolan hasi nintzen, hemen, Udarregin”

NOAUA! 400 metroko distantzia da zure probarik gogokoena. Beti izan da horrela?

Itoitz Rodriguez: Atletismoan, gazteagoa zarenean, ez dituzu distantzia olinpikoak egiten. Distantzia ertaineko probak egiten nituen txikitan. 600 edota 1.000 metroko lasterke-

tak. Behin, Euskadiko kadete mailako txapelketan, 300 metroko proba bat korritu nuen eta Espainiako markarik one-na ezarri nuen. Espainiako Txapelketara joan nintzen urte horretan eta finalerako sailkatu nintzen baina finalean erori egin nintzen.

Hurrengo urtean jubenile-

tara pasa nintzen eta geroztik 400 metroko lasterketak egiten ditut.

Familiatik, eskolatik... Atletismorako lotura hau nondik datorkizu?

Faktore asko daude. Batetik, amaren zein aitaren aldetik egon bada atletismoan aritze-

ko joera. Bestetik, txikitatik nire abiadurarengatik nabarmentzen nintzen eta, ona nintzenez, jarraitu egin nuen. Txarra banintz, seguraski ez nuela segiko. Eta azkenik, oso gustuko dut atletismoa.

Hasi, Eskola Kirolan hasi nintzen, hemen Udarregin. Eta gaur arte.

“Itxialdia oso gogorra izan zen”

NOAUA! Pandemiak zer nolako eragina izan du zure eguneroko kirol jardunean?

Itoitz Rodriguez: Itxialdia oso gogorra izan zen. Pista estaliko eta aire libreko trantsizio horretan harrapatu gintuen. Guk entrenatzeko pista bat behar dugu. Eta abenduan lehiatzen hasteko, abuztuaren amaieran hasi behar dugu entrenatzen. Deskonfinamendua hasi zenean, Donostiako belodromoan entrenatzeko aukera izan nuen eta horrek asko erraztu zizkidan gauzak.

Neurriak aldatuz joan dira. Taldekako entrenamenduak egiteko aukerarik ba al duzue? Maskara jantzita aritu behar al duzue? Une honetan, nola dauzue gauzak?

Donostiako belodromoan entrenatzen dugu eta eremu gorrian gaudenez, launaka entrenatu behar dugu. Hori izan da gure buruhauste handiena.

Lasterketa bakoitzeko, PCR proba bat egin beharko duzue. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan adibidez, ez dugu antigenorik ez PCR probarik egin. Tenperatura hartu eta eskuak garbitu, bai. Pistan eta harmailetan ere oso zorrotzak izan dira jende multzo handiak ekiditen.

Espainiako Txapelketan egiten bada, suposatzen dut antzeko jokatu dutela.



Itoitz Rodriguez Real Sociedad taldeko kirolaria da. Argazkian bi dominekin ageri da. Argazkiaren egilea: Iزارo Lopez.

ITOITZ RODRIGUEZ

“Donostia eremu gorrian dagoenez, launaka entrenatu behar dugu. Hori da gure buruhausterik handiena”

Noiz eta non jokatu den, hori zehaztuta al dago?

Otsailaren 20an Madrilen, baina oraindik ez dakit joateko aukerarik izango ote dudan. Arautegia aldatu egin dute eta

partehartzaile kopurua murriztu egin dute.

Covid-19a dela eta, baldintzak aldatu egin dituzte: ez da minimarik izango, TOP12a bakarrik hartuko dute kontuan baina iazko aire libreko marka batzuk ere baliagarriak izango dira. Saltsa dago eta ez dakigu zer gertatuko den. Nire entrenatzaileak federaziora deitu zuen lehengoan eta eurak ere ez dira aklaritzen. Ikusi behar zer gertatzen den.

“Sortuz bakardadea isolatuz helduleku bat izan zen”

NOAUA! “Sortuz bakardadea isolatuz” ekimenean hartu zenuen parte. Nola gogortzen duzu garai hura eta, batez ere, herri ekimen hura?

Itoitz Rodriguez: Oso egun ilunak izan ziren. Etxean sartuta, entrenamenduetara ezin joan, eta ezin umeak entrenatu (Real Sociedadeko entrenatzailea ere bada Itoitz). Egunerokotasunean ere, ezin zen gauza handirik egin. Sortuz bakardadea isolatuz helduleku bat izan zen, eguna alaitzen zizun zerbait.

Ziklo horren baitan, zuzeneko saio batean hartu zenuen parte. Entrenamendu bat zer zen azaldu zenuen eta etxean egiteko moduko ariketa batzuk proposatu zenituen.

Realeko entrenamenduetan bezala, herritarrei antzeko zerbait eskaintzea proposatu zidaten eta gustura egin nuen. Etxean sartuta geundenez, ariketa ezberdinak proposatu nituen.

“Sortuz bakardadea isolatuz” abestian ere agertu zinen, repeatzen. Gustuko duzu musika?

Kantatzea txikitatik izan dut gustuko. Jaietan, Bertsio Gauan parte hartu izan dut eta hortik iritsi zitzaidan abestian parte hartzeko gonbitea.

“Atletismoari esker atzerrian ikasteko aukera izan dut”

NOAUA! Donostiako Belodromoan entrenatzen duzu orain. Baina garai batean Lasarten entrenatzen zenuen eta garai hartan NOAUA!ri eskaintako elkarrizketa batean kexu zinen. Lasartekoa ez zela entrenatzeko pistarik onena. Zertan dira gauzak gaur egun?

Itoitz Rodriguez: Antzeko jarraitzen du egoerak. Nik iaz utzi nion Lasarte-Orian entrenatzea-

ri. Gipuzkoan zorte ona eta zorte txarra dugu. Belodromoa eta mini-estadioa ditugu eskura Donostian, baina Buruntzaldean ez dugu aukera handirik. Hernanin badute atletismoko pista, baina orain berriro dutelako.

Atzetik datozen gazteentzat ez da oso motibagarria, ezta?

Usurbildar gaztetxo batentzat oso zaila da egoera. Lasartera

joan behar duzu eta bi herriak ez daude batera ondo komunikatuta. Eta gainera, Lasartekoa ez da pista bat, modulo bat baizik. Donostiara joan daiteke baina gurasoekin mugitu beharko luke.

Bekak ba al dira atletismoan?

Nik zorte handia izan nuen. Jubenil mailan oso ondo ibili nintzen eta Gipuzkoako Foru

Aldundiak errendimendu handiko kirolari izendatu ninduen. Horri esker beka bat eskuratu ahal izan nuen.

Aldi berean, Amerikako Estatu Batuetan ikasteko beka bat lortu nuen eta lau urtez egon nintzen bertan, hemengo IVEF-aren pareko ikasketak burutzen. Beraz, atletismoari esker, kanpoan ikasteko aukera izan dut. Pribilegiatu bat izan naiz.

GuraSOSen helegite bat tarteko, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak “euskal autogobernuaren” aurka jo du

Auzitegiak albiste, GuraSOSek 2016an Zubietako erraustegiaren ingurumen baimenaren aurka aurkezturiko helegitearen harira. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak konstituzioaren aurkakotzat eta baliogabetzat jo du 1998. urtean onarturiko Eusko Legebiltzarraren ingurumen arloko araudiko artikuluetako bat. Artikulu horrek, “araudi honek aurreikusitakoa betetzea exijitzeko ekintza publikoa” bideratzea ahalbidetzen du, “bai administrazioaren bidetik baita auzitegien bidetik ere”. Auzitegien bidea da baliogabetu dutena.

GuraSOSek berri eman duenez, elkarte honek 2016an aurkezturiko helegitea onartezintzat joko du Euskadiko Auzitegi Gorenak datozen asteetan. “Ez da gaian sakonki sartuko. Horixe zen hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak nahi zuena, baita Euskadiko Auzitegi Gorenak ere. Badakite gaiari sakonki heltzeak inguru-



“Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadiko Auzitegi Gorenak ingurumen baimenaren ilegaltasunaz iritzia ematea saihestu nahi zuen eta horretarako GuraSOSi helegitea aurkezteko eskubidea ukatzea proposatu zuen”.

GURASOS

“Fiskaltza bera ere GuraSOSek defendatutako tesiaren alde kokatu da”

men baimena baliogabetzea eragingo lukeela eta beraz, proiektua geratzea”.

Epaia kaleratu aurretik, eskatzen dio “berriz azter dezala GuraSOSen errekurtsioa onartzea, “Estatuko Fiskal

Nagusaren txostenean oinarrituta”. Bideragarritzat jotzen du GuraSOSek estatuko legean oinarritzea.

Lehen aldia

GuraSOSek salatu duenez, euskal autonomiaren 42 urteko historian, Gernikako Estatu-tutik etorritako erakunde batek, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak euskal autogobernuaren aurka egiten duen lehen aldia, “beste euskal

erakunde batek (Eusko Legebiltzarrak) onarturiko araudia konstituzioaren aurkakotzat jotzea eskatuta”.

Foru Aldundiak legitimazio falta egotzi zion GuraSOSi, “alegazioen aurreko tramitazioan”. Aldundiaren helegitea baliogabetu zuen Euskadiko Auzitegi Gorenak 2018ko irailaren 25ean. “GuraSOSek helegitea aurkezteko zuzeneko interes agerikoa zuela ulertu zuen”. Horri Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun zion eskatuz, “Euskal Legearen aurkako konstituzionaltasun falta planteatu zezala”.

2020ko martxoaren 9an, Euskadiko Auzitegi Gorenak Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren esku utzi zuen auzia. “Konfinamendu betean konstituzionaltasun faltaren gaia ez onartzea eskatu zion GuraSOSek”. Eskaera horrekin bat egin dute baita Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak. “Fiskaltza bera ere GuraSOSek defendatutako tesiaren alde kokatu da”.

“Ingurumen demokrazia ezarri arte ez dugu etsiko”

“Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadiko Auzitegi Gorenak ingurumen baimenaren ilegaltasunaz iritzia ematea saihestu nahi zuen eta horretarako GuraSOSi helegitea aurkezteko eskubidea ukatzea proposatu zuen”, azaldu du ohar bidez GuraSOSek. Baina helburua ez du betetzerik izan guraso elkartearen esanetan, ekinbide judizialari segida ematen jarraitu ahalko baitu.

Auzitegi Gorenera

Honen guztiaren “helburua denbora irabaztea zen”, GuraSOSen esanetan. Eta helburua lortu dutela dio GuraSOSek,

“ingurumen demokrazia eta autogobernua erasotzearen bizkar izanda ere”. GuraSOS Espainiako Auzitegi Gorenean aurkeztuko duen kasazio helegitea prestatzen ari dela berri eman du. “Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ez du legaltasun gaietako balorazioetan sartu nahi izan, Estatuko Fiskaltzak eskatzen zion moduan. Zeregin hau Auzitegi Gorenari dagokio”. Hortxe kokatzen du GuraSOSek bere borrokaren hurrengo urratsa, eta ezinezkoa balitz, Nazio Batuen Erakundera jotzeko asmoa du; Ginebran egoitza duen “Aarhus-eko hitzarmenaren Jarraipen

Batzordera”. Argi adierazi du GuraSOSek; “ingurumen demokrazia ezarri arte ez dugu etsiko”.

Jarrera argitzeko eskaera

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Autogobernu Saila Auzitegi Konstituzionalaren erabakia “deitoratzen dutela” berri eman du baita GuraSOSek, “eskumena husteko doktrina bati erantzuten diola” adieraziz. Baina aipatu elkartetik diote, “harria bota zuen eta orain eskua ezkutatu du”. 2020ko otsailaren 28ko idatzian, EAEko Auzitegi Nagusiak Auzitegi Konstituzionalera

jo aurretik Jaurlaritzarengana jo zuen “Euskal Legearen konstituzioa-kontraktotasuna planteatuz” eta bere oniritzia eman zion. Gobernantza Sailak egunotan dio GuraSOSen arabera, elkartea ez dagoela legimitatua “sortu aurretik hartutako ingurumen-ebazpenak inpugnatzeko”. GuraSOSek Jaurlaritzari eskatu dio argitu dezala “ea errespetatzen duen” herritarrek elkartzeko, eta haien defentsa-eskubidea, bereziki ingurumen arloan.

Ingurumen-demokrazia arriskuan dagoela ikusita, ingurumen nahiz justizia sektoreen babesa jasotzeko kanpaina abiarazi du GuraSOSek.

Batzar Nagusiak, erraustegiaren jardueraren legezkotasunari lotutako txosten juridikoa aurkeztearen aurka

EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak Zubietako Erraustegiaren jardueraren legezkotasunari buruzko txosten juridikoa eskatu zieten Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu taldean diren EAJ eta PSEri. Eskaera ukatu zitzaizen, Gipuzkoako Batzar Nagusietako otsailaren 3ko osoko bilkuran.

“Txostena egin da?” galde-tu zuen EHBilduren ordezkari Ainhoa Intxaurrendietak, legeak hala egitera behartzen duela oroitaraztearekin batera. “Txostenak eginda badaude, lehenbailehen eskuratu behar genituzke, gardentasunaren izenean, diru publikoarekin zer egiten ari garen ikusteko”. Gardentasuna ez dela aukera, betebeharra baizik gogoratuz, txostenok egin eta oposizioko taldeen nahiz herritarren esku jartzera derrigortuak daudela gogorarazi zien Intxaurrendietak EAJ-PSEri. Hori da bide bakarra Intxaurrendietaren esanetan, “irregulartasun eta ustelkeria zurrumurruak ekiditeko”.

“Barne kontrola beharrezkoa da”, gaineratu zuen Elkarrekin Gipuzkoako alderdiko ordezkari Maria Valientek, “fiskalizazioa eskatzea eskubide bat da, gardentasun kontu bat” aldarri-



Batzar Nagusietako bozketan, EAJ, PSE eta PP txostenak ematearen aurka agertu ziren. EHBildu eta Elkarrekin Gipuzkoa alde.

ELKARREKIN GIPUZKOA

“Barne kontrola beharrezkoa da. Fiskalizazioa eskatzea eskubide bat da”

katzearekin batera. Hori guztia ikuskatzeko urte hasieran email bidez erraustegira bisita eskatu zutela ere gogorarazi zion Elkarrekin Gipuzkoako foru gobernuari. “Irakurri dute, ez digute erantzun”.

Erraustegiaren kontrolaren aurka

Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkariak duten gainerako hiru taldeek bozkatu aurretik hitza hartzeko zuten aukerari

uko egin eta bozkatu ostean, labur azaldu zuten haien iritzia. Bozketan, EAJ, PSE eta PP txostenok ematearen aurka. EHBildu eta Elkarrekin Gipuzkoa alde. Aldeko 21 bozka, aurkako 30. Eskaera ez zen onartua izan.

PP-ko batzarkide Juan Carlos Canok “etengabeko ikuskizuntzat” jo zuen gai horretan ez zuela parte hartu nahi adierazi zuen. Herritarren konfiantza galtzea eragiten duela eta Zubietako “balorizazio planta” deitu zionaren iraintzean ez zuela parte hartuko.

PSE-tik Susana Garcia Chueca batzarkideak adierazi zuen ez zirela EHBilduren eta GurasoSen estrategia politikoaren

“konplize” izango. “Ez dute biltzen plantaren kudeaketaren kontrola egitea, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen itxiera baizik”. GHK-ren funtzionario eta arduradunak etengabe “delitu egiletzat” jotzearen aurka agertu zen, epaitegiek behin eta berriz haiei arrazoia eman dietela argudiatuta. Jarduteko modu hau gaitzetsi eta aipatu funtzionarioei babesia adierazi zien. EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak eskatutako txostenen gaia GHK-ren asanbladan tratatuko dela iragarri zuen. “Beharrezko barne kontrola bermatua dago”.

Baina ez zuten eskatutako txostenak erakutsiko zituztenik adierazi. EAJren izenean Andrea Arriola haratago joan eta oposizioko taldeek eskatutako txostena “ez da beharrezkoa” adierazi zuen. Bere esanetan, “Zubietako instalazioa lege eskatutako baldintzak betetzen ari da”. Txostenen eskaerarekin, “aspalditik bideratua eta konpondua dagoen gai bat mahai gainera ekarri da”. Txostenik dagoen eta egina bada erakutsiko duten konpromiso zehatzik hartu gabe igaro ziren batzarkideak, osoko bilkurako gai zerrendako hurrengo puntura.

Zubietan erraustegirik dagoenik ukatu egin du Ingurumen diputatuak

Zubietako erraustegiaren egoeraz argibideak emateko Gipuzkoako Batzar Nagusietan agertzea eskatu zion berriki EHBilduk Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputa-

tu Jose Ignacio Asensiori. Bere erantzunean Asensiok ukatu egin zuen Gipuzkoan “errausteketa instalaziorik” dagoenik, eta argibideak eskatu zizkion EHBilduri.

“Kontuan hartuta Gipuzkoan ez dagoela izen hori duen instalaziorik, Gipuzkoako Batzar Nagusien Mahaiari eskatzen diot azal dezala izendapen horrek zeri

egiten dion erreferentzia”. Ez hori bakarrik. “Era berean, jasotako idazkia zehatza ez denez, agerraldiaren xedea zehatz-mehatz azaltzeko eskatzen dut”.

Gure esku diren tresnak baliatuta, hizkuntza-eskubide urraketak salatzeke deia

Usurbilgo Udalak eta Behatokiak hizkuntza-eskubide urraketan alorrean eragiteko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten azaroa amaieran. Testuinguru horretan, herritarrek gai honetan ahaldundutako formazio saioak egitea aurreikusten zuten; iragan astean egin zuten Potxoen. Udalak antolatuta, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak zuzendari Agurne Gaubekak, urraketak salatzeke sarritan sortzen zaizkigun zalantzei buruzko argibideak eskaini eta eskura ditugun tresnak aurkeztu zizkigun. “Herritarren ahaldundutzea hizkuntza-eskubideen bermerako ezinbesteko pausoa da”, gogorarazi du Gaubekak sare sozialen bidez.

Bereizkeriak ezabatzeke

Behin kexatzea ez da nahikoa. “Eskatu, kexatu besterik ez dugu”, euskaldunok eguneroko bizimoduan pairatzen ditugun hizkuntza-eskubideen urraketan aurrean, “kexarik ez dagoenean, arazorik ez” baita ikusten, ez baita dagoen es-



Herritarrok eskura ditugun tresnak ezagutu eta erabiltzera gonbidatzeko ahaldundutze saioa eskaini zuen Behatokiak.

AGURNE GAUBEKA, BEHATOKIA

“Herritarren ahaldundutzea hizkuntza-eskubideen bermerako ezinbesteko pausoa da”

kubide urraketa azaleratzen. Eta isilpean jarraitzen duen artean, urraketak urraketa izaten segitu du.

Hala zioen Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiak zuzendariak. Usurbilgo Udalak antolatutako hitzorduak hizkuntz eskubideen urraketan aurrean, herritarrok eskura ditugun tresnak ezagutu eta erabiltzera gonbidatzeko ahaldundutze saioa izan zen, “usurbildarren kontzientzia piztu eta aktibatzeke ikastaroa”.

Beste eremu batzuei lotu-

tako giza eskubideen urraketekin gertatzen den moduan, euskal hiztunok pairatu ohi ditugun “bereizkeria horiekiko” ere borrokatu beharra dugula nabarmendu zuen Gaubekak. Hala aitortzen baitugu Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak edota espainiar zein frantziar estatuek sinatua duten Hizkuntza Gutxituen Europako Itunak.

Euskal Herriak 5 araudi

Hauek onarturiko itun eta aitorturiko eskubideak, beste kontu bat da praktikan zenbateraino errespetatzen diren. Argi denez noski, “ez dituzte betetzen”. Kontrarik pentsa dezakegun arren, ezta oso euskalduntzat jo dezakegun Gipuzkoan ere. “Lege babesa izan bai, baina ez dira betetzen”.

Europako panoramatik gure errealitate hurbilerainoko bidea marraztu zuen Behatokiak. Munduan ahotan hartzen diren 6.900 hizkuntzatik %3a hitz egiten da Europan. Hizkuntza ofizial bakar bat izan eta beste hizkuntza ko-

munitaterik ez duen herrialde bakarra dago; Islandia. Gainerako herrialdeetan hizkuntz aniztasuna kudeatzeko eredu desberdinak daude. Frantzia edota Turkian esaterako; hizkuntza ofizial bat dute, nahiz hizkuntza gehiago izan. Aniztasun hori balore kultural gisa aitortzen dute, baina “praktikan ez du eraginik. Aniztasunik ez da onartzen”.

Hizkuntz aniztasunaren “nolabaiteko” aitortza egiten duten herrialdeak ere hor daude. Hemen bi eredu ezberdintzen dira. Finlandian, herri batean hizkuntza berean hitz egiten

duten 3.000 herritar baino gehiago baldin badaude elebitasuna aitortzen da. Espainiar estatuan, hizkuntza ezberdinak hitz egiten dira, baina Behatokitik nabarmentzen dutenez, “nolabaiteko” aitortza egiten zaie. Euskararekin gertatzen dena dugu horren guztiaren adibide argia.

Euskal Herria etorrita hain zuzen, “saltsa” ederra dugu euskararekin. Behatokitik azaldu zuten moduan, “euskararen estatusak” bost araudi ezberdin ditu Euskal Herrian. Nafarroatik irten gabe, bertan hiru; hiru zonaldeetan bereizia

baitago herrialdea: Nafarroa iparralde, gaztelaniarekin batera euskararen ofizialtasuna aitortua duen zonaldea; gaztelania ofiziala izan baina euskarari dagokionez, zenbait eskubide aitortzen dituen Nafarroa erdialdea; eta gaztelania soilik ofiziala den hegoaldea. Bertan euskal hiztunei ez zaie eskubide bakar bat ere aitortzen. Ipar Euskal Herrian, frantsesa dute hizkuntza ofizial bakarra. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan EAE mailako araudia dugu indarrean eta euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak.

Euskaraz lan egiteko derrigortasuna

Eremu hurbilenera etorrita, EAE mailara honenbestez, euskaldunoi legeek zer eremuetan babesten gaituen azaldu zuen Behatokiko zuzendariak. Kontuan hartzekoa, sarritan zalantzak sortzen direlako, non zer eskubide exijitu daitekeen. Zerbitzu guztiotan euskaraz lan egitera derrigortuak daude:

■ **Administrazio publikoa:** EHU, Osakidetza, Ertzaintza, Udaltzaingoa. Alegia, osasungintza, hezkuntza, komunikazio enpresak, energia hornitzaileak (ura, gasa...), garraio bideak eta garraio enpresak.

■ **Administrazio publikoaren menpe dauden erakundeak:** Alokabide, Bidegi, Correos, Doako Laguntza Juridikoen Batzordea, Egailan, Euskalit, Euskotren, Eustat, Kutxak, Langai, Lurraldebus, Spri....

■ **Aseguru, finantza eta kreditu erakundeak,** etxebizitzari buruzko informazioa ematen dutenak...



“Sarritan zalantzak sortzen dira, non zer eskubide exijitu daitekeen”.

BEHATOKIA

Eskubideok betearazteko tresnak falta direla dio Behatokiak. “Ehunka urraketa jasotzen ditugu urtero eta ez da ezer pasatzen”

■ **Telekomunikazio enpresak:** mugikorren enpresak...

■ **Establezimendu komertzial handiak:** 250 langiletik gora dituztenak, 50 milioi eurotik gora duten negozio bolume-

nekoak...; salmenta gunearen azalera 400 metro karratutik gorakoa dutenean, hiriburuetako establezimenduak, elebidunen proportzioa %33 baino handiagoa duten udalerrietakoak, zentro komertzialak, merkatuak...

Euskararekiko exigentzia falta

Eta hementxe dator gai honen guztiaren gako nagusia; halakoetan, alegia ezarritako araudia ere betetzen ez dutenean, “zer gertatzen da?”, eus-

kaldunok zer egin dezakegu? Hor hasten da herritarren zeregina, eta sarritan, zalantzak, exijitzeko erreparoa...

Eskubideok betearazteko tresnak falta direla nabarmendu zuten Behatokitik. “Ehunka urraketa jasotzen ditugu urtero eta ez da ezer pasatzen”. Pandemia hilabeteotan esaterako, osasungintzari lotutako hainbat salaketa jaso dituzte, euskaraz dakiten profesionalak falta direlako. Lanpostu publiko hainbatetan ez zaio idatziz nahiz ahoz euskara erabiltzeko gai izatea exijitzen profesionalari. Usurbilgo anbulatorioan berriki bizi izan den moduan, euskaraz ez zekien pediatarrekin. Eremu gehiagotan ere gertatzen da; esaterako, Ertzaintzan, edota justizian horrek dakartzan ondorioekin, begi bistakoa baita horrek guztiak “nolako eragina izan dezakeen defentsa eraginkor batean”, edota osasungintzan behar bezala artatua izaterakoan.

Kontzientzia, aitortza eta arauen bermea

Ekainean 20 urte beteko dituen Behatokiak bi hamarkada daramatza “herritarren ondoan” helburuon bueltan lanean; euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak babestu eta defendatzen; hizkuntza-eskubideen urraketan aurrean euskaraz bizi nahi duten herritarrei oztupoak gainditzeko laguntza eskaintzen; zailtasunen aurrean herritarrei babesa eman eta euskaraz bizitzeko nahia egunerokoan eta praktikan errealitate bihurtzeko lan egiten.

Herritarrek aldaketarako “mikroboterea” izan gaitzkeela ohartarazi zuen Gaubekak. “Mikrobotere” hori gauzatzeko piramidearen hiru ertzak gogorarazi zizkigun; herritarren kon-

tzientzia, erakundeen aitortza eta arauen bermea. Urraketak salatzea, kexuak aurkeztera animatzen gaitu Behatokiak, kexuek benetan eragina izan izaten dutela. Esaterako sare sozialek hizkuntza-eskubideen urraketak salatzeke hedabide gisa duten eragina nabarmendu zuen Gaubekak, enpresa bati baino gehiagori salaketok irudia “kolokan” jarri dutela nabarmenduz.

Usurbilgo Udaletik ere hizkuntza-eskubideen urraketak salatzeke deia egin zuten. “Zenbat eta begi gehiago, eragiteko ahalmen handiagoa”, zioen udaleko euskara teknikari Ander Moronek. Gogorarazi zuenez, arlo honetako ordenantza bat badu Udalak, arauak jarri eta betearazten

ere aritzen dira, halere ordea, herritarrek ere adi egon eta urraketarik sumatzen badute jakinaraztera deitu zituen.

Hizkuntza-eskubideak urratzen zaizkigunean, kexak aurkezteko bideak ditugu:

Kexak bideratzeko bideak

■ Kexak biltzeko postontziak Usurbilen:

Zenbait udal zerbitzuetan: Sutegin, Potxoenean, udal erregistroan... NOAUA! Kultur Elkartean, Urbilen.

■ Akuilari:

Mugikorretarako aplikazioa, akuilari.eus atarian eskuragarri. Kexuaren argazkia bidaltzeko aukera. Azken hilabeteotako kexak ikusteko aukera dute. Hizkuntza-eskubideen

urteko txostena jasotzeko aukera eskaintzen du; aurkeztu den kexa kopurua...

■ Webgunea:

Erabiltzaile gisa erregistratuta kexak testu eta irudi bidez helarazi daitezke euskararen-telefonoa.eus webgunearen bidez. Kexen jarraipena egin, zalantzak argitu edota jarraera eredugarriak txalotzeko aukera eskaintzen du.

■ E-posta:

telefonoa@behatokia.eus

■ Telefonoz:

948 146 172
690 932 472

Informazio gehiagorako:
behatokia.eus

Covid-19a aldentzeko lurrari deiadarka



Santa Ageda bezperako koplak ezagunak abesten entzun genituen Udarregi Ikastolako LH-ko ikasleak.

Zorionez Covid-19ak ez ditu guztiz eten, urtero berritu ohi diren usadio zaharrak, ez behintzat euskal kulturaren transmisioaren ikuspuntutik ezin garrantzitsuagoak direnak ikastetxeentzat. Egungo osasun krisialdiak ahalbidetzen dieten heinean eta beharrezko segurtasun neurriak hartuta, otsailaren 4an ez genituen urteroko makil hotsak falta izan.

SANTA AGEDA BEZPERA

Egungo testuingurura egokitutako ekitaldiak izan ziren, publikorik gabe

Santa Ageda bezperako koplak ezagunak abesten entzun genituen lurrari deiadarka, makilen kolpe hotsen erritmora Udarregi Ikastolako LH-koak. Bizi dugun osasun krisialdia, covid19 mardarikatua hizpide zuten bertsoekin, koronabirusa uxatze-

ko eskaera presente egon zen. Egungo testuingurura egokitutako ekitaldiak eskaini zituzten, publikorik gabe, musukoak aurrepian, eta beste urteetan baino multzo txikiagoetan; goizean Artzabalen LH 1, 2 eta 3 mailako ikasleek eskaini zuten saioa. Bazkalostean, LH 4, 5 eta 6. mailakoek frontoian, biak ala biak Jaione Eskuderoen gidaritzapean. Haur Hezkuntzakoak Agerialdeko patioan aritu ziren.

Oriaren Jaitsiera, hilabetez atzeratua

Aginagan abiatu eta Orion amaitzen den urteroko trainingu jaitsieraren 27. edizioa izatez larunbat honetarako, otsailaren 13rako iragarria zegoen. Baina hilabetez atzeratzea erabaki dute, martxoaren 21era arte. Goizez ospatuko da 10:00etan hasita. Parte hartzaileentzako izen ematea martxoaren 15era arte luzatuko da baita. Bizi dugun osasun krisialdiak egun horretan jokatzea eragozten badu, bertan behera gertatuko da proba aurtengoz. Bada beste aldatetarik ere, hitzordua ospatuko balitz, bertako taldeek soilik parte hartuko dute, kanpotik ez da inor etorriko. Aurreko edizioetan besteak beste, Mediterraneo aldeko parte hartzaileak erakarri izan ditu hitzorduak. Aginagako Mapil eta Sarikola izan ohi ditu abiapuntu jaitsierak.



Hilabetez atzeratzea erabaki dute, martxoaren 21era arte.

Aste honetan abiatuko da “Amatasun bizigarria” tailerra

Otsailaren 10ean, 17an eta 24ean 17:00-20:00 artean Potxoenean, Ainara Gorostitzu Mujikak bideratuta. Tailerreko izena bideotatik eman ahaliko da doan; usurbilkultu-

ra.eus atarian edo 943 377 110 telefono zenbakira deituta.

Ahalduntze ariketa

“Gaur eta hemen amatasuna exijente eta zail egiten duten

hariak ikusi eta teoria feministen eta amatasunaren historiako ekarpenekin, hausnarketa pertsonalekin eta talde dinamikekin amatasunaren praktika eta esperientzia bi-

zigarriagoak bilatzea izango da ikastaroaren egitekoa, beti ere, egite horrek dakarren ahalduntzea eta interpelazio politikoa ere helburu izango ditugularik”.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxina
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagarria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko

ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuok deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko

emakume bat eskaintzen da. 631157290.

BESTELAKOAK

Usurbil inguruan baratza landatzeko lur sail baten bila nabil. 606601235

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandaja bat ditu. Prezio negoziagarria. 696763868/699723314

Perikito bat galdu da Puntapax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maiden)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Xabi!!**

7 urte konturatzerako, primeran pasako dugu zure eguna. Muxu potolo asko etxekoen partez.

Heriotzak

Isidro Zaldúa

Alkorta

Otsailaren 5ean

hil zen,

90 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER

Andre Kalea, 48 "Cuevas"

943 55 17 93

Agenda otsaila

12 ostirala

13 larunbata

14 igandea

■ **Erradikalak ginen ikuskizuna** 18:00etan Sutegin. Sarrera 6 euro, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri. NOAUako bazkideak 4 euro (soilik bulegoan eskuragarri).

■ **Ameba taldea zuzenean** 17:00etan Sutegin. Sarrera doan baina aurrez eskuratu behar da usurbilkultura.eus atarian.

Larunbat honetan, “Erradikalak ginen” ikuskizuna Sutegin

Erradikalak gara ikuskizunarekin saio pila bat eskaini ondoren, Erradikalak ginen emanaldiarekin itzuli dira oholtza gainera.

“Lehen aldi hartako pasioz, korseak askatuta, bertso eta bakarrikzeta bidezko formatuari eutsi eta buruberokiak eduki berriz betetzeko gogoz”. Zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz eta beste hainbat gaiz arituko dira otsailaren 13an Sutegin. “Feminismoa zeharlerrotzat hartuta eta umorez”, Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek aditzera eman dutenez. “Umorez, beraz, serio”.



18:00etan hasiko da emanaldia.

Otsailak 13, larunbata

■ 18:00etan Sutegin.

■ Sarrerak: 6 euro, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri. NOAUako bazkideentzat 4, euro baina bulegotik pasa behar dute sarrera eskuratzera. Bazkide bakoitzeko bana.

Amebak bere lehen diskoa aurkeztuko du igande honetan Sutegin

Usurbilgo musika taldeak estreinako diskoa kaleratu du, igandean, otsailaren 14an aurkeztuko du 17:00etan Sutegin iragarri duen hitzorduan. Enara Eizagirre, Aritz Zabaleta, Malen Azpiazu eta Jon Mikel Azpiazu laukotearen diskoak

eta kamisetak ere eskuragarri jarriko dituzte kultur etxean.

Sarrerak aurrez eskuragarri

Kontzerturako sarrerak usurbilkultura.eus atarian eskuratu ahalko dira aurrez doan.

Datozenak

Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari buruzko saioa

Usurbil sagardoaren bihotza, sagardoaren kultura zikloaren baitan, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak “sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari” saioa antolatuko du.

Aurrez eman behar da izena

Otsailaren 26an ostirala, 15:30ean Potxoenean. Aitor Etxeandiak bideratuko duen hitzordurako izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus atarian, alkartasuna@usurbil.com helbidean edo 943 361 114 telefono zenbakian.

Inausketa praktikak egingo dira

“Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira: ekoizpenaren hobekuntza, arbolaren erregulazioa fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu...”, Alkartasunatik aditzera eman dutenez. “Ongarriketari desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira”.


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA



Bideo konferentziak



Whatsapp

Adinekoentzako ikastaroak:

Lau ordukoa

Talde txikietan, pertsonalizatua eta presentziala
Nork bere telefonoa ekarri behar du

Ordutegia: parte hartzaileei komeni zaienean

Non: kaxkoan eta auzoetan, eskaera nahikoa izanez gero

Izena emateko

943 37 71 10



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



saski hau zozketatuko
otsailaren 26an



SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Kimaketa
Praktikak
Bertako
sagastietan
egingo dira!

Otsailak 26, OSTIRALA
SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA,
ETA ONGARRIKETA.
Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman.

